



BARANDIARAN AMARIKA, Asier (ed.)
Euskarazko Kazetaritza: gogoetak, esperientziak eta analisiak.

Iruña : Nafarroako Unibertsitatea, 2007. – 113 or. : ir.
 ; 30 cm. – ISBN: 84-8081-047-5.

Asier Barandiaranek editatu duen liburuak balio aipagarriak dauzka DIN-A4ko 113 orrialdeetan zehar (*Euskarazko Kazetaritza: gogoetak, esperientziak eta analisiak*, Nafarroako Unibertsitatea, Iruña, 2007), eta handiagoak gordetzen dituela esango genuke, editorearen beraren hitzaurrea irakurritz gero.

Izan ere, Universidad de Navarra-Nafarroako Unibertsitateko Filosofia eta Letren Fakultatean, “Euskarazko Kazetaritzaren Jardunaldien” boskarren edizioa egin baitzuten iaz, 1964 sortutako Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedraren eskutik. Honela, 2000an hasitako jardunaldi “xume” haiek, 18 hizlari bildu dituzte urte hauetan eta unibertsitate bereko kazetaritza ikasle askorentzat aberasgarriak izan dira.

Jardunaldi horien sintesi modura argitaratu dute liburu hau, non euskarazko kazetaritzaren historiaren gai eta pertsonaiak eta gaurkoaren esperientziak biltzen diren. Alabaina, atalak ez daude ardatz horien inguruan antolatuta, baizik eta hitzaldi-emai-leen abizenen hurrenkera alfabetikoan. Horrek nahaste apurtxo bat ematen dio, agian, baina ez handiegia.

1. HISTORIAREN ALDEA

Xabier Altzibar ikertzaileak, bibliografia nahiko xehetua sartuz, euskal kazetaritzaren sorrerako kazeta eta kazetari garrantzitsuenak eskema modura paratzen ditu, XIX. mendean hasi eta muga 1945ean jarritz, II. Mundu Gerraren amaieran. Javier Diaz Noci irakasleak ere euskarazko kazetaritzaren historia lantzen du baina XX. mendera lotuz.

Asier Barandiaran irakasleak, Enrike Zubiri “Manezaundi” (1867-943) nafar idazle eta kazetariaren 132 artikulua, prentsan argitaratutakoak, estilo erretoriko-politikoaren ikuspegitik aztertu eta emaitza kuantitatibo baliagarriak lortzen ditu. Joxemiel Bidadorrek ere liburuko beste atal batean Manezaundi hartzen du gaitzat, baina kasu honetan Luzaiden jaio eta Iruñean bizi izandako pintorearen euskararen eta euskararen alde egindako ekarpenaren inguruan.

Joxemiel Bidador idazle eta ikertzaile berak, Pablo Fermin Irigarai “Larreko” (1869-1949) sendagile eta artikulugilearen soslai aberatsa egiten du eta honen prentsa-lan guztiak zerrendatzen, 1910ean hasi eta 1936era arte.

Lourdes Otaegi Imazek “Lizardiren poetika eta ingurumariaren arteko dialektika” jorratzen du, jadanik ezagun diren alderdiak hitzaldi formatoan berbisitatuz. Bibliografia ezak herren samar uzten du lana eta, halaber, nire ustez, nahiko urrun gelditzen da liburuaren hezurduratik. Behartuta bezala dago hemen.

2. KAZETARITZAREN ESPERIENTZIAK

Julio Iturri *Diario de Noticias de Alava*-ko zuzendariak funtsezko galdera egiten dio gaurko kazetaritzari eta krisian dagoen prentsari: ¿Zertarako erosi behar du irakurleak egunkari bat egunero? Erantzun tradizionalen aurrean, Iturrik, bere ustean proposamen alternatiboa dena egiten du: prentsa lokala, soziala, anitza, interpretatzailea, irudimentsua, askea eta enpresa modura bideragarria izatea.

Odile Kruzeta *Euskadi Irratiko* zuzendariak euskarazko kazetagitntzan jarduteak dauzkan abantailak eta desabantailak ekartzen ditu gogora eta lanerako lau ideia-ardatz proposatzen ditu: entzule/irakurleari mezua adieraztea eta, batez ere, “uler-taraztea”; audientzia zein den garbi izatea; hedabidearen ezaugarriak eta indarrak identifikatu eta aurreratzea; eta laugarrena, “egun guztiak diferenteak direla” gogoan izatea eta, beraz, kazetari-sena, arian-arian eta intuizioan zutabetua, zorroztea eta egu-nak dakarren berria aurkitzea, modu egokian emateko.

Xabier Letona *Argiako* zuzendariak euskarazko kazetaritza “grina eta aukera kon-tua” dela adierazten du, gogorra delako eta etsipena ere ate ondoan egoten delako. Alabaina, Letonak ozenki dio “euskarazko kazetaritzak erdarazkoak baino aukera han-diagoak eskaintzen dizkiola kazetarigaiari, hiru baldintza emanik: euskaraz lan eta bizi nahi izatea; euskarazko kazetaritzaren hargin izan nahi izatea; eta kazetaritza grinaz bizitzea”.

Letonaren hitz horiek, egia esateko, euskarazko kazetaritzaren historiaren oinarri eta gerokoaren indargune baitira. Ez dago zalantzarik, historia gaur ere bada.

Iñaki Zabaleta Urkiola